

Andoni_Agirre

Non nago? Ilun dago. Ingurura begiratzeko saiatu naiz, baina alferrik: ez dut ezer ikusten. Iluntasuna baino ez. Alde batera mugitzen saiatu naiz baina horma bat aurkitu dut, gauza bera gertatu zait alde guztietan. Forma zirkularreko gela ilun batean nago ezin mugiturik. Gero eta zailago egiten zait arnasa hartzea. Zer egin ez dakidalarik, nire ezkerreko paretari kolpeka hasi natzaio. Paretan zulo bat egitea ere lortu dut, ez da hain pareta gogorra. Burua atera dut kanpora begiratzeko asmoz. Kanpoan hodei beltzak ikusi ditut: sekulako ekaitza dago. Behera begiratzeko ez dut lurra ikusi laino beltzen artean, badirudi airean noala. Hegan.

Beste kolpe batez ni nengoan gelako pareta guztiak puskatzea lortu dut. Kanpoan nago orain. Euriak bustitzen nau. Lasto gainean nago eta ingurura begiratzeko kaiola baten barnean nagoela ikusi dut, ni bertan etzateko bezain handia eta ni baino hamar bat zentimetro altuagoa. Alde batera begiratu dudanean, izugarritzko sustoa hartu dut, neskatila ilegorri bat ikusi dut. Baina erraldoia! Ni baino hamabost aldiz handiagoa gutxienez! Bera nire kaiola heltzen ari da bi eskuekin. Zorionez ez nau oraindik ikusi. Lasto artean ezkututzen saiatu baina ez berak ikusi ez nagan. Bat-batean neska garrasika hasi da, ikaratuta dago baina ez nau ikusi oraindik. Bizikleta antzeko makina batean dago eserita, eta harrigarria badirudi ere hegan goaz! Globo erraldoi bat dago makina honi lotuta. Baina globoa zulatuta dago, eta gidaria ikusi dut beste aldean, ibilgailu hegalaria kontrolatu ezinik. Erortzen ari gara. Ni ere garrasika hasi naiz, Neskari kaiola erori zaio eskuetatik nire garrasia entzutean eta hodei beltzetan zehar erortzen hasi naiz. Erortzean begiratu egin dit, segundu batez baino ez, eta niri zerbait oihukatzen saiatu da “esk...” baina ezin izan diot gainontzekoa ulertu trumoiaren zarata ozenen artean.

Erortzen ari naiz. Laino beltzak zeharkatuz. Oraindik ez dut lurra ikusten. Gero eta azkarrago noa lasto artean uzkuertzen naizen bitartean. Beldurrez. Lur gogoraren kontrako talka ikaragarriaren zain. Nire ondoan bizikleta hegalaria ikusi dut hodei artean eroriz eta lurra abiada bizian joaz, bizikleta eta bertako bi bidaiariak txiki-txiki eginez, odol eta burdin puskez betetako leherketa batean.

Nik ere lurra jo dut azkenean, buruan sekulako kolpea hartuz eta kaiola erabat suntsituz, lasto artean nengoan zorionez, eta kolpea ez da hilgarria izan. Lurrean etzanda gelditu naiz, minez, konortea galdu baino lehen.

Esnatu naizenean, lehengo leku berean nengoan. Gaua zen. Asko kostata, mugitzen saiatu, eta ikaragarritzko oinazearekin zutitzea lortu dut. Galdera pila etorri zaizkit burura: nor naiz? Zer gertatu da lehen? Ez dakit ezer. Ez dut ezer gogoratzen. Zerbait aurkitu dut lurrean nire ondoan, mapa bat. Erdi hautsita eta ezabatuta badago ere, iparralderantz doan ibilbide bat ikusi dut markatuta eta haren bukaeran X gorri bat, mapako puntu bat adieraziz. Nire ingurura begiratu dut, nire burua mapan kokatu nahian. Baso baten ondoan nago, mapako hegoaldean eta huraxe zeharkatu behar dut mapan markatutako puntura iristeko. Eta basorantz abiatu naiz beste aldean nire galdera guztiak argituko dituen zerbait aurkituko dudanean esperantzaz.

Basora iristean ordea arazo bat suertatu zait. Bi bide daude basora sartzeko, eta mapako zati hori erabat ezabatuta dago eta ez dakit zein den basoa zeharkatzeko bidea. Bide batek basoaren bestaldera eraman nazake edo beste leku galduren batera. Ezkerreko bidetik joatea erabaki dut azkenean, eta bide ilun lokaztsuan zehar abiatu naiz baso ilunerantz.

Ordu batzuk ibili ondoren, erabat galdu naiz. Oso nekatuta nago. Gose naiz. Bidea non dagoen ere ez dakit eta noraezean nabil basoan zehar. Euria hasi du urrunean etxe bat begiztatu dudanean. Bertara hurbildu naiz eta atea jo dut. Handik gutxira, mutil batek ireki dit atea. Ilegorria eta ni baino altuagoa da, oso ezaguna egiten zait baina ez dakit zergatik:

- Ze ari zara hemen? Ez zenuke hemen egon behar neska. Gaizki aukeratu duzu. Huts egin duzu. *Berriro.*
– esan du. – Jarraidazu.

Bere atzetik joan naiz etxe barrura, eta handik gela batera eraman nau. Apalategi pila daude bertan, hutsik daude denak bat izan ezik, bertan arrautza bat dago, nahiko handia. Kaiola baten barnean. Mutilak arrautzadun kaiola hartu du eta eman egin dit.

- Azkenekoa da – Esan dit begietara begiratu. – zure azken aukera, ez berriz huts egin edo betiko galduko zara. Goazen.

Kanpora eraman nau, bertan gero eta gogorrago ari du euria. Etxearen atzean bizikleta antzeko makina bat dago. Globo handi bat du lotuta eta pedalek atzean duen helizeari eragiten diote. Igotzeko agindu dit, eta mapa kendu dit eskuetatik eta bere poltsikoan sartu du. Atzean eseri naiz, eta bera aurrean. Bizikleta lurrera heltzen duten sokak moztu ditu eta airean abiatu gara.

Orduan, pentsatzen hasi naiz, dena oso ezaguna egiten zait, hau lehenago gertatu zaidala iruditzen zait. Mutilak huts egin dudala esan dit, ez nintzela egoera honetan egon behar, baina zein da egin dudan akatsa? Orain mutilak hegoalderantz narama, mapako X-tik gero eta urrutiago. Bertara iritsi behar nuen, baina ez dut lortu, beste alderantz narama, hori esan nahi ahal zuen mutilak? Basoko sarreran bide okerra aukeratu al nuen? Eskuinekotik joan behar ahal nintzen? Zergatik zen arrautza hura azken aukera?

Oraindik gogorrago ari du euria, tximistak ere ikusten hasi naiz. Handik gutxira sekulako ekaitza sortu da, zerua beltz dago. Hegoalderantz jarraitu dugu hegan, basoaren hasierara iritsi arte. Bertan, mutilak bere sakelatik labana bat atera eta bizikleta airean mantentzen duen globoari zulo bat egin dio. Garrasika hasi naiz, erortzen ari gara. Segidan, beste garrasi bat entzun dut, eta bi eskuekin gogor heltzen nuen kaiola erori zait sustoarekin. Orduan, segundu batez, kaiolan zegoena ikusi dut: *ni*. Azkeneko *ni*. Ez dago arrautza gehiago. Ez aukera gehiago, arrautza horretatik atera denak bide zuzena aukeratu behar du basoan bere helmugara iristeko, “Eskuinera!” oihu egin diot, ez dakit entzun didan, trumoiaren zarata ozenaren artetik. Lagundu nahian, mutilaren poltsikotik mapa hartu eta kaiola erori den toki beretik bota dut, nire hurrengoak aurkitu duen esperantzaz. Gero lurra jo dugu, abiada bizian, odol eta burdin puskez betetako leherketa batekin.

Elkar VI. Ilustrazio eta ipuin lehiaketa.

Andoni Agirre